

IPUIÑAK

I

AZERIA ta TXAKURRA



OTAZUA'tar BENITO

IPUIÑAK

I

AZERIA ta TXAKURRA

EGILLEA.- OTAZUA'tar BENITO

MARRAZKIGILLEA.- AÑON'tar ESTIBARIZ

1995

Ez dakigu non ez ze alditan, baiña orain edestuko dodana jazoriko, gertatukoa ei da. Baiña jazo ez ba zan be, gertatukoa ez ba da be, jazo leitekela argi dago.

Urtarrilleko egun ots, ekaitso bat, edurrezko oial izugarria inguruetako lurraldetan edatzen zan. An emenka eraikita egozan basetxetan, bertako biztanleak mukurrez ondo orniduta ziran sutondotan nasai astia emoten eben. Benetan egun negargarria, batez be jakigelan bordaritzat armiamar-sarea uts-utsean daukanentzat.

Gure ipuiñeko luki, azeriari be olako zerbait jazoten jakon. Bere urdaila uts-utsik. Bere urdaillean armiamar-sarerik be sartu al izateko lekurik ez eban; bere ormak, urdaillaren ormak alkarraganaturik, bat eginda ziran. Azeriak arterako astean Erramon Errotazarreko oillotegian arrapau eban oilloskoa, egunak zi-

ran jan ebala, orrez ganera egazti au ez zan izan bat be okelatsua, ta ganera txikia.

Basetxe-errietan Urtarrilla txarri ilte, txarribodatarako, ille berezia izaten da. Basetxe bazuetakoz kezuloetatik bekaizkerizko usain gozoak urtenda, jan-naia bizkorturik, etxean, sutondoan aitita-amamaren ipuin eta esakerakaz atseginduz, gaztetxu ta aziagoak be, gozatzen eben.

Gure ipuiñeko azeriaren egoitzan, sutondoan ez egoan mukurrik; sugar bero-bero bat eginda bere alboan lapiko aundi bat, edo txiki bat, ezarririk, jakiz beteriz ez ba da be, urdaila atzipetuteko naiko zanik be, sukalderatze-ko ez egoan. Luki, azeria, oldoztu ta oldoztu. Bere urdaila zelan betetu, ta beraz bere jasan eziñeko gosea zelan asetu bururatu eziñik, eguna aurrera joakion eta arrasti, arratsaldean bere egoitzatik urtetea erabagi eban.

Orain zer egingo dot nik? Baiña nora joango naz?... Nongo basetxerantz anka arifiak abiatu?... Errotazaar basetxera ezin neiteke joan. Erramonek, bertako etxegunak bere basetxe inguruan nire usaiña sumatzen badau, nire azkena izango da. Erramon errotan artagarao uruntzen egingo da ziur, baiña luki, azeri, usaiña nabaritzen ba dau, nire urreratzea sumatzen ba dau, bertan arto ta urunak itxita, lagata, bere erbi-txakurra azkatu ta eiza-izkillua eskuan arturik, nire azkena izango da. Erramo-

nek leenengo dandaban garbituko nau. Erriko eiztarien artean begi-zixta bikaiñena dauana bera ei da. Bai Errotazaar basetxea baztertu dagigun. Bere oillotokira ikustaldi bat egiten joatea, beste egun anbaterako baztertu bearko dot. Eta guztiz tamala jat, zelako oillosko guri, ederrak daukaz Erramonek ba! Errota-zaarreko oilloskoak uko eginda, Leizarretxera joatea erabi eban.

An bai, Leizarretxen bai, ziur nire urdaila betetuz, azpaldian dodan okela gosea asetuko dot. Bertako atso-aguretxuak naiko zaartxuak dira ta etxea zaindu, jagoteko be, eurak aifiako txakur zaarkote bat dabe. Egia da, bertako oillotokiko egaztiak ez dira bat be okelatsuak, baiña untxiak be ba daukiez. Bai, oillo ta untxi ederrenatariko bana arrapauko dodaz. Oilloaz a zelako saldea egingo dodan! Egualdi, egutaro onegaz oillo-salda bero-bero bat benetan onuragarria da. Oillokia bera be, saldean ostein, saltzan ipiñita illak eurak be saltuka eragin eitekoa da!... Eta untxia, au kazuela aundi baten arrosaaz ipiñiko dot. Azpaldian untxia arroz-saltzan ez dot jan. Azkenen goz jan neban untxia, abade jaunaren oillotokian ostu nebana izan zan, Ja! Ja! Ja! Orain berangana lapurketa au aitortzen ezin neiteke joan! Ja! Ja! Ja!...

A zelako barre-zantsoak gure azeriak, abade jaunaren untxia dala ta egiten ebazanak!...

Ames-jantrope oneik urdailla ez dabe betetzen, baiña gure azeriak ameseta onek eraginda sekulako atsegiña sortu eban. Bere aurrean, azeriaren aurrean, mai eder bat mai-oial eta guzti ikusten eban, lapiko aundi bat, oillo iztar gizen, okelatsua agirian zala bekaitzkeriz inguruak lurrindurik, gure azeria sorgortuta aurkitzen zan.

Baiña ez, ondiño bere bazkari, bere jantropea ez zan amaitu. Zer diñaustazu untxi-kazualakadetaz. Sukaldari ospetsu, trebeenak apaillatuta be gozoago eziña zan. Azeriak bere afaria amaitu eban, baiña bere miña agoan alde batetik bestera erabiliz, bere espanak mizkatuz beragan sortzen eban gozaldi, atsegin aldia azaltzeko ez dago itz, berbarik. Aldi areitan, amesafarialdian azeria bizi izan zan sorgor-aldi lilluragarriaren ekaiñean, atsegin-tokirik eder, oparo, bikaiñenean be eziña da aurkitzea. Zalan-tzan naz, gure ipuiñeko azeriak, basa-pizti oneintzat ain zoragarria dan oillokia, oillo eder-eder, mardul bat egiz jaten izan ba zan be, atsegintsuago ez zan izango; une areitan bere urdaillean eban utsune kezkarria ez eban sentitzen. Zoriontsuak amets poz-erazleak!

Baiña ametsak ametsak dira, ta geienetan eguneroko egiazko izakeraren, gertakisunaren antzik, irudirik, ez dabe izaten. Azeri, lukia be itzartu zan. Naizta bere ametseta aiñako oillo ta untxi eder, gozorik arrapatzea eziñekoa izan,

bere urdailla ixiltzeko zerbait, arin, laster abarotu bear eban; karrakadak, urdaillaren karrakadak, kezkatu jarraitzen eben eta.

Emendik, aurkitzen nazan toki onetatik, Kukutze basetxea dot urrena, baiña bertako oillotokian lapurtzea ez da deduzko, zuzena. Etxegun andra-gizonak guztiz zaartxuak dira, etxaldeko lurak landu, erain eta landarak jorrazteko be ez dabe laguntzarik, eta beraz uzta urriak lortzen dabez, ez, ez bertara ez naz joango. Ganera bertako oillo ta untxiakaz nire urdailla beingo baten ezingo dot betetu, guztiz argal dagoz eta.

Bai irakurle maitea, azeria, gure ipuiñeko lukia, naizta eiztari trebea izan, biotz onduna zan. Bai, lapurretatik bizi zala egia da, baiña zer egingo eban ba!, zoritxarrez egunero jan bear da, ta berak beste bizi-bide obeagorik ez eban ikusten. Jarrian irakurriko dozun lez, arterago beste langintza baten saiatu zan.

Udabarriko egun argi, alai bat zan, eguzkia iñoiz baño be disdiratsuago, emankorrangoak, alde guztietatik bizi-erazi sortzen eban. Egun zoragarri aretan, gure azeria goiztar, oillosko eder, guri bat gozaldtu ondoren, bere egoitza zan aitzazpetik betiko zorrotxua lepoan ebala, urdail bete batek eragiten dauan poz-alaitasunaz, urtenda, Legorretxe alboko intxaustitik, mendi magaletik abaro bat zearkatuz, naiko urrun egoan mendiska baterantz joian. Itu-

rriotz basetxerako bidea alde batera itxita, utxita, ezkerreko bide-ziorretik ibar, aranerantz jarraituz, bertatik, aranetik, murmurka ibairantz urreratzen zan errekatxuan, goizean gozaldu eban oilloskoak eragin eutsan egarria, makaltzera abiatu zan. Une beratan Iturriotz basetxeko ugazabaren baimenaz, etxe beratako zaindaria zan Txakurto be egarriturik, iturri beratarantz joian. Bereala biak topatu ziran eta alkar agurtu, esanez:

Egunon Luki jauna, eguaro ederra ez?

Bardin zuri be, Txakurto jauna, bai benetan gaur eguraldi ederra da.

Zu betiko zeregin beratan ez? Luki jauna, gaur lumadun ala ille, ulenduna izango da?

Ez bata ez bestea, gaur goizean beintzat okela goserik, gurarik be ez dot.

Bai ederto, baiña daroazun lepo-zorro ori, zetarako dozu ba?

Txomin Azkarre basetxeko gaztaindegian perretxikorik ba dago ikusi bear dot, Luki jaunak erantzun eutsan.

Bai, bai, perretxikoak!, zure iztegia benetan bakana da. Perretxikoak barazkiak dira, osterala luma edo uledunak, leenengoak baño zuretzat atsegintsuagokoak dira, Txakurtok esan eutsan.

Ara Txakurtxo, ni luma ta uledun arrapatzailla izango naz, eta beraz ementxe bertan nazala autortzen dot, baiña guzurtia ez. Beste

alde batetik, nire lapurketak nire urdaill eragiñen ondorioak dira.

Baiña gizona, beti lege-austen ibilli barik, zergaitik gizon deduzko bat bezela legepean ezin zara bizi? Txakurtok iñotsan.

Zer nai, gura dozu, zer nai dozu egin dagidan, dandarrez, gosez erdi-illik bizi naiten?, abots bigun, maitekiroz Luki jaunak erantzun eutsan.

Begiratu eizu ni zelan bizi nazan. Nire etxegunak, andra-gizonak, etxalde polit baten jabe dira, ta ni euren egoitz eta ondasunen jagole, zandaria naz. Ni zulako arrapatzailla, lapur anbatek euren abere eta egaztietan, zuen erpa ta agin, ortz zorrotzak sartu ez dagizuezan, gau ta egun jagole, zain egon bear naz. Ez da lan, bear, gogorra. Orrez ganera nire andra-gizon ugazabei txera ta saltuka batzukaz, nire esker-ona aideraziz, egiñik, eurakandik eguneroko otamen ederra lortzen dot, baita be, ikusi al dozun lez, ementxe bertan lotarako ta astia nasai emoteko, egoitz epel-epel bat daukat, txakur-toki goi ta aldamenetatik babestua, ta bean, lurrean, laztozko oge bigun eta bero-beroa.

Nozean beinka nire nagusiakandik, beti lotan nagola, txakur jagole alper bat nazala ta olako txakurkeriak entzun bear izaten dodaz, baiña ez-entzun egiñik eta eroapen onez artuta, bizitza aurrera ederto doakit.

Zu Luki jauna, zu lumadun zale porrokotua

izanik, oillotegintzan zergaitiz ez zara saiatzen? Oillotegi eder bat antolatu eizu, orrelan oilloak egunero ipinten dabezan arrautz gorri, ipiñi-barriak zure eztarria bigundu, gozotzeko eukiko dozuz. Ba dakizu arrautzatik txitatuak sortzen dira, geroago oillosko, oillanda, oillo ta oillarrak izateko. Oneikaz egunero ezekako arrisku gabe okela samurkor, guria eukiko dozu. Orrez ganera, izaki deduzko, langille bateri dagokion itzaltasun eta aomen-ona eskuratuko dozuz, Txalurtok esan eutsan.

Txakurtoaren aolkuak entzutean, Luki jauna guztiz oldozkor geratu zan.

Demontrez, kontxo, astokilloa ni, zelan orain arte, Txakurtok esan daustan onegaz ez naz bururatu? Bete bêtean bere onu, oso osoan, beteko dot.

Esan eta egin, gure azeriak leenengo lapurketan eskuratu ebazan txanponakaz, amabiko bat oillo ta oillar bat erosi ebazan. Bere egoitza zan aitzpean oillotoki polit bat antolatu, eratu, eban. Arrezkero goizero goiztar bere etxe ingurua sekulako abes-batz batek alaitzen eban. Anjo kukurrukada ta kar-kar otsa amaibakoa zan.

Bitartean Luki jauna ogean nasai, zenbat arrautz bero-bero, ipiñi-barriak eskuratuko ebazan oldozten astia emoten eban. A bai zan bizia! Goizaro bere leenengo lana bere egaztiei jaten emotea izaten zan. Arto-garao ta gari-ga-

raoa eskukadaz banantze eban, eta ondo banandu be. Aldrako egazti anbat bere otamena barik geratu ez eiten, arreta aundiz janaria oillo ta oillanda artean banantze eban. Zagozen ederrak ikusirik, iñoan bere baitan, bakoitzak egunero arrautzatxu bat baño geiago emon bear daustazue.

Baiña bai irakurle, errazoa dozu. Arto-garao ta gari-garao Lukiak, nondik arraio lortzen eban, ba? Berantzat jaki-ornitze au guztiz erreza zan. Inguruko arto eta gari soloak beranak ziran. Auzokideak euren lurrak landu, azia erein, jorratu, bedar gaztiok kendu, lan guztiak egiten ebezan, baiña uzta aldia eltzen zanean, lan ori egiteko, arto ta garia batzeko Luki jauna azkar ibiltzen zan. Ori bai, iñoren baimen barik. Lapurketa orreik dirala ta nekazariak kezkatu ziran, baiña gure azeriak gabaren illuntasuna bere egikisun zital orreitarako lagunik bereziena izaten eban. Matxunga obeagorik amesetan be ez.


Leenengo urtea ondo joakon gure azeriari, bere oillotxuak abesti saioaren ondoren, arrautz berebil ederrak opatzen eutsoezan, eta Luki jaunak bere eztarria leunki izaten eban. Baiña egun baten bere auzokidea zan Txakurton etxetik, Txakurtonetik, bertako ke-zulotik egoaizeak eraginda, bultzaturik, bekaitzkerizko oillo-saltza usain gozo-gozo bat nabaritu eban.

Txakurtoanean a zelako oillo-salda ta oilloki

saltzan gaur jango daben! Usaintxu orrek bere urdaillean eragiten eutsan jan-naiaz ausnartzean, bere baitan iñoan. Ni astokillo onek, arrautzak eta arrautzak uts-utsean jaten beti naz. Arrautz-arrautzagaz aspertuta be ba naz. Ganera ainbeste arrautz gibelerako be kaltegarriak ei dira. Osagilleak olan baieztatzen dabe, ta gizon ain jakintsu onein onuak bete bear dira.

Biar, gangar motel-motel daukan oillo zuriska ori ilgo dot. Egia esan azpalditxuan nire oillotokian ez da izan onurazko, jan baño ez daust egin, eta emen alperretarako naikoa naz neu.

Esan eta egin, urrengo egunean, biramo-



Azeria aboan oillo bat daroala igeska.

nean, oillo gangar luzedun, zuriskea lapikoan izan zan. Leenengo lapiko bette salda gozoa egingo dot, eta gaiñerazko oillokiaz, pepitoria-saltzan sukaltzen siatuko naz. Saltza mota au guztiz gozoa ei da.

Berak asmau eban bezela oilloa gertatu eban. Leenago salda, zuku, usaintsu gozo-gozoa ta gero oillokia saltzan; Arbelaiz sukaldariak be ez obeto, gozoago. Egun bi edo irurako janari ugari eukan. Bazkaldu ondoren, ibar, aran, barrenetik ereslari, saltuka joian errekatxuan ur-ozkirri zurrutada eder-eder bat egin-da, bere egoitz alboko gurbixtegian aa zelako bazkalondokoa egin eban. Au bai bizia! bere baitan iñoan. Arrautz gordin eta arraut-opillakaz, egia esan, azpertuta nintzan. Amabost egun barru Anton Deunaren jaia ospatzen da, aberreen zaindaria izanik, Deun agurgarri orreri dagokion bezela jaia ozpatzeko, zer obarik eguerdian bazkari eder-eder bateaz gozatu baño. Egun orretan, obeto esanda, egun orretarako oillo zaarranatariko ederrena ilgo dot, zuku, salda egin eta beste zatia saltzan sukaltzeko. Jai orretan, egun ospetsu orretan, Txakurzulo basetxeko Martiñek lengo egunean emon eutsan txakolin zuria edango dot. Egun bat egun bat da!, oiturazko ez da azeri batek txakolin eta ardaoa edatea, baiña egun bategaitik... Ganera Luki jauna ardao-nazka zan.

Aste baten Anton Deunaren jaia dala ta,

beste baten bere eguna, urrengoan auzoko azeri-eme polita dala ta, aiztuta izan dot irakurle, baiña Luki jauna bere auzokide zan azeri-eme kirru, polit, lirain bateaz maitamendurik zan, egun baten zio bategaitik eta beste baten naizta zio-gabe izan, oillo edo oillosko bat lapikoratzeko beti egoan gertu. Jakifia jokkaera onegaz Luki jaunari oillotegia gitxituten joakon, eta zelan!...

Bere amesetatan, gure azeriaren amesetatan oillotegia aunditze asmua eban. Leenengo lokatzen jatan oillolokapean, bere baitan ifioan, amabiko bat arrautz ezarriko dot, illebeta baño leenago txitatxuak nire etxe aurrean moztorro, arrak mokokatzen ibilliko dira ta beraz beingo baten, epe laburrean, oillanda ta oillosko eder-ederrak aziko dira. Nik ondo be ondo elikatuko dodaz, ainbat leen oillandak arrautzak ipintzen asi daitezcan artagarao ugari izango dabe.

Amesetak amesak dira, egikisunak zoritxarez ez dira bardiñak izaten. Geratzen jakozan oillotxuak, egunero euren jabeari arrautz ederrak opatuz, zintzo jokatzen eban. Oillotxu bat be ez jakon lokatzen eta beraz txitatxuak eukitea ez eban ain argi ikusten. Agur nire oillotegia!, ifioan. Txitarik ez ba dot, nire oillotegian kukurruku ez oillo kar-kar otsik ez dot entzungo. Luki kezkatu egoan, bere arazoa urduri, larri egotekoa zan.

Baiña ara non, bere auzokide Erramon Itu-

rriigoiko basetxeokak, oilloloka eder-eder bat opatzen dautsan, ori bai, gero txitatxuak azitean, oillo bat ordaintzekotan.

Gure azeriak, biotz-biotzez Erramon esker-turik, bereala oillolokea arrautz ganean ezarri eban. Amasei arrautz jarri eutsazan, oillo naiko aundia zan eta.

Arik iru aстера oillolokea bere amasei txitatxuakaz etxe inguruko lantzar eta soloean moztorro, euli ta ar txikitxuakaz euren biroak betetuz, guztiz alai ebiltzan. Ze guri-guriak, politik egozan ba!

Ikuspegi zoragarri onen aurrean, gure azeria zoratuta lez, bere zoriona siñistu eziñik betiko asmakisunetan jarraitzen eban. Bai, bai, Erramoneri beste oilloloka bat eskatuko dautsat, ori bai, beste oillo bat ordaintzekotan. Nire oillorak arrautzak ipiñi ta ipiña baño besterik ez dakie egiten. Antza danetik ama-oilloloka bat izatea ez dabe nai. Nire auzokide Erramonen oillolokatuz esku berezia dau, berak ziur beste oilloloka bat emongo daust.

Ameseta oneik bere buruan izaten ziranean, bere urdaillak bitartean esaten eutsan:

Or dozuz txitatxu orreik laster oillo eder-ederrak izango diranak, eta arrautz ipin-barri bero-beroak ugari, bai zurrut egiteko ta baita be arrautz-opil gozoak egiteko, eukiko duzu. Zeren adi zagoz ba, nire barnea armiamarsarez beteta, beste bordari gabe eukiteko?

Egia da bai, iñoan, oraintxe bertan oillo mota gorriduna ilgo dot, beragaz oillo salda ta oillokia saltzan sukaldaturik, janariturik, eguna ederto emongo dot. Bereala oillotokira joanda aitaturako oilloari samea biurritu eutsan. Gertaera au edo antzekoa sarriagotu zan, eta gure Lukiaren oillotegia urritu, gitxituten joakoan. bere itxaropena txitatxuegan eban, egia zan, guztiz polit ederrak egozan, laster oillanda ederrak izango ziran eta beraz arrautz ipinten asi.

Ludi onetan guztitariko arrapatari, depre-dadoreak, dagoz, eta egazti txitatxu oneik be, gure txitatxu oneik be, arrapatzaille oneik ezagutzeko aukerea izan eben. Goi ortzi urdiñean miru baltz bere ego luzeak edaturik egazka, andra-oillolokeak bere txitatxuak zaintzeko egiten ebazan mugimendu guztiak adi-adi begiratu, bere begi zorrotzak, txita ajola-gabe anbat amagandik uste-gabe alden-durik, bere erpa iltzailleak egaztiaren okela bigun-bigunetan sartzeko, zain, egoan, egazkatzen eban.

Zoritxarrez, egaztiarentzat zoritxarrez, txitaxua anbat beti bere amagandik aldentzen zan, eta miru zital arek sarriegitan bere otamena lortzen eban. Naizta oillolokeak bere umetxuak jagon, zaintzeko alegin guztiak egin, miru doillor, arrapatzailletzan eben trebetasunaren aurka, ezin izaten eban ezer onu-

ragarririk egin. Txita-aldratxua geroago ta urriagoa zan.

Emen dogu gure Luki jauna oillo ta txita barik, bere bizi-bide bakarra azeritza zala. Ara emen bere amesetak, bere txakur-amesak nora gidari eben. Berantzat oillo-salda, arrautz-opil eta oilloki-saltzak amaitu ziran, arik aurrera, jatea bearrezkoa da ta, berak ekian langintza bakarrean saiatu bearko eban, au da, oillo ta untxiak arrapatzen. Amesetatatik, eguneroko izate, danatik, bidarte aundia izaten da.

Ara emen gure Luki jauna, ipuin onen asieran bezela, egun ekaitz, gogor, edurtsu baten bere gorputsean gose ta otza ta jaki-gela utsutsik, zelan aurkitzen dan. Egoera larri onetan Luki jaunak ez daki zer egin, ez da be zein bide artu ez zein joka-bidean saiatu. Bere oildozeptatan amets batetik bestera bereala aldatzen da, erdi zoraturik lurralde aretako oillotoki, oillo ta untxiak lerroka agertzen dira. Egazti ta untxi guztiak gizensu ikusirik bere gosea geiagotzen doa ta guztiz etsimendurik bere burua urkatzeko bidean aurkitzen da. Baiña ara non, ziurki goseak eraginda, goseak adimena bizkörtu egiten ei dau ta, burutasun zoragarribat izan eban.

Gaur oker ez ba naz, Larunbata da ta Azkore basetxean Ameriketatik etorri-barria dan bertako seme gaztearen etorrera ospatzen dabe. Zuzen be, sekulako bazkaria! Sakela bete-bete-

rik, ondo janda eta obeto edanda erronkatsu izango dira. Baiña astokilloa ni, gertaera one-gaz zelan leenago ez naz burutatu? Saltukada baten bertan izango naz, azeriak bere baitan iñoan.

Arrasti erdian Azkorrera urreratuko naz. Sasoi orretan bazkaria amaiturik, akeit eta txola batzuk, edari gogor txola batzuk edanda, Ameriketatik mutil gazteak ekarritako txokor eder-ederrak erreten egongo dira. Bai bazkal-kide guztiak etxe beratako biztanle guztiak, puzka lo-zorroan bazkalondokoa egiten egongo dira. Kiko, txakurrak be bazkari berezia izango eban, eta naizta txakur jagole, zaindari, zintzo ta deduzkoa izan, txakurtokian nasai lo egondo da. Aukera berezia dot bertako oillotokian leengo egunean ikusi neban oillo gangar gorriduna arrapatzeko, lapurtzeko. Aregaz bai, oillo lodi, guri aregaz bai, egun batzutarako otamena eukiko dot.

Astirik, unetxu bat be galdu barik, bertarantz abiatuko naz, esan eban Luki'k eta be-reala bere egoitza zan aitzpebeko aldean egoan aran txikitxu bat zearkarurik, mendi magaletik gorantz, areitz eta gaztaiñaz inguratuta zan lantzar eder erdian aurkitzen zan Azkarre basetxera gure Lukia arreta aundiz urreratzen joian. Zugaitz enbor, zugaitz enbor izkutaturik, zugaitz enbor ostetan izkutaturik, geldiro geldiro, saratatu bat be egin barik, or doa

gure azeria Azkarre basetxeko oillotokirzantz. Bere urdail kezcatsua zerbait lumanduna lapurtuz, nasaitzen ba dau, guztiz itxaronpetsu doa.

Azkarre aurrean, gure errietako basetxe askok bezela, bere atari aurrean, intxaur eder bat dauka, zugaitz adartsua, naizta Urtarrillan oneik guztiz billosik aurkitu. Zugaitz ganean adarrarik adarrera txindortxu bat bere gorputz txikitxutik egun aretan zan otz izugarria uxatu naian, saltuka ebillen. Saltuka bai, baiña baita be azeriak egiten ebazan mugimendu guztien zain. Txoritxuak, txindortxuak, aze-riaren asmu, naia, argi ikusten eban. Oillo, oillo edo untxi anbaten billa etorrela ba ekian.

Nire alegiñak ezer balio ba-jabek, ez dok maltzur arlote ori, ik nai doana lortuko ba!... Arlote ori, Amerikatarraren etorrera, errirartzea, ospatzen bazkari onetara etorteko baitmena, nok emon dausk, ba? Ez dok lortuko ez... gaur buztana iztar artean, burua makur eta urdailla utsik, eroan bearko dok...

Txindortxua bakar-izketa onetan zan bitartean, azeria apurka apurka oillotokira urreratzen da, oilloak ez ebazan ikusten bere begiekaz, baiña bai bere ames-begiekaz.

Aa zelako afaria gaur gabean egingo dodana! Biar-etsitarako be janari ugari eukiko dot, batez be a beñiolako oillo gangar gorridun

eder-ederra arrapau izaten ba dot. Bere gogo, bere asmakisunetan, oillo gangar gorriduna, gizentsu ederra uts utsean zan.

Oillotokira azkenengo saltukada egiñik sartzeko aurkitzen zan une ber-beratan, ara non, txindortxuak txakur-toki aurretik bein eta barrero egazka birilketa saratatsu batzuk egiñik, bere txio-txio urduriakaz, txakurra izartu, ernatzea lortzen dauan. Txakurrak bere tokitik urtenda auzika, zaunka, ots gogor, garratzaz oiuka iñoan:

Zer da ori txindortxua? Zer jazoten jatsu ain abeslari, saratsu egoteko?

Begiratu eizu Kiko, Txindorrak iñotsan, intxaustitik zear gorantz nor doan ez dozu ikusten? Nire egazkada ta txio-txio saratatsuak uxaturik, igeska doa. Antza danetik, Luki jaunak gaur oilloki saltzan jateko guraria eban, baiña beste gertaera anbaten zori ohea ez ba dau, gosea urdaillean eta otz gorputzean izanik, gaurko gaba luzea egingo jako. Tamala da, bizi nai, gura, ba da beti lapurretan ibilli bear izatea.

Zuk gaba otz au igaroteko egoitzarik ba daukazu? Txindortxu? Kikok esan eutsan.

Ondiño ez, baiña okuillu, baztartxu bero edo epel anbat aurkituko dot, txindorrak erantzun eutsan.

Nire egoitza, nire txakurtokia, naiko edatsu, zabal eta aundia da, zuk nai, gura ba dozu, ber-

tan nire alboan biar goiza arte bero-bero egon al izango zara, Kikok opa eutsan bere etxea.

Milla esker, Kiko, ara, ez eistazu txartzat artu, baiña nik, azeri, katu, txakur eta otso agin, ortz, zorrotzdunokan uste onik ez dot, zuekaz ez naz entziduten, txindorrak erantzun eutsan.

Txindortxua ez egoan guztiz oker, abere, edo pizti orreik, lumadun izakientzat ez dira bat be auzokide atseingarriak.

Oraingoan be, gure Luki bere buztana anka artean, burua makur eta urdailla utsik, Azkore basetxeko aldamenen egoan abaro itsu batetik gaba igarotzeko toki bat billatzen abiatu zan.

Goikomendi basetxera joango naz, iñoan gure azeriak, bertako andra-gizon ugazabak, nekazari deduzko, biotz ondunak dira, ta jakirik, oillokirik ez ba da be, kortan, gortan, okuillutxi baten gaba au igaroten zillegiko dauste. Bertako jagole zaindaria, txakurra, be errozoizko txakurra da, zuzena, ta nire itxura adore-gabe ikusirik, bertan gaba emoteko ez dot izango eragozpenik. Bai bertara joango naz.

Goikomendiko etxeguna Patxo, sasoi baten gizon indartsu ta ausarta izan zan, baiña giza-
seme-gizakia makaldu ta nasaiago izateko, urteak zio bereziak izaten idra. Bere andra Errufiña be, gaztetan inguru aretako neskatil polit

ederrena izan zana, matrail gorritzka, ule kirru luzeduna, bera be urteak eraginda kuskul, burua zurizka ta matrail zimel, margo-gabe zan. Andra-gizon onen gorputzetan luzaroan egindako lan gogor, neketsuak eragindako zantsu berezia agertzen eben.

Andra-gizonak, Goikomendiko andra-gizonak, euren adore, margo gorritzka, txairotasunean, urteak eraginda galdu ebena, zintzotasun, gizatasun eta aztura, jakiturian jabetu eben. Inguru aretan, bai bere errian ta baita be albo-errietan Patxo guztiz ezaguna zan, bere ospe, aomen-ona danak baieztatzen eben.

Auzokide ta erritarrak, arazo anbat euren artean sortzen zanean, alderdi biak beragana jotzen eben. Euren auzi, ezbardintasunak, bakez zuzendu naian, Patxo aolkutzaille ta sarritan baita be, euren arazoetan epaille izendatuz, gizon itzalgarrri, agurgarria zala, argi agertzen zan.

Zuzen be ez da arritzekoa gure Luki jauna beragan aurkezturik eta azeriak agertzen eban itxura negargarria Patxok ikusirik, Goikomendi basetxean bertako etxagun biotz ondun onek kortako okuillutxu anbaten gaba bat igarotea zillegiko eutsala, uste izatea.

Bai, bertarantz joango naz eta Patxori gau onetarako ostatua eskatuko dautsat. Ganera ziur naz, bera dan gizon deduzko, emankorraz, ostatua ezeze, nire itxura negargarria ikusirik,

zerbait bero-beroa jateko be emongo daustala. Zelan nire gose-otz jasale onegaz ez da nabarrituko, nire aurpegia gose-irudi ber bera ba da? Baiña leenago, bide batez dot eta, bein baño geiagotan sekulako oillo-arrapatzetan, lapurketatan, nigaz kide izan zan Lukito agurtuko dot. Ez da izango erreza baiña ba leiteke nigaz errukiturik, bere egoitzan afari bero-bero baten ondoren gaba igaroten opatzea, bertan bere egoitzan gaba igarotea opatzea. Nigaz mezedebat baño geiagotan zorrean da, benetan zekena da bai, baiña biotz-gabea ez da.

Bere baitan oldozketa, asmakisun oneik erabiliz, or doa gure azeria bidezior batetik sarritan loratsu, eze, orlegitzu agertzen dan aran txikitxu bat zearkatuz, mendi magal bazterretik, burutasun barri bat izan ebanean, goseak eragindako burutasunak, bai egia da, goseak adimena bizkortu egiten dau ta, Beko-errotako ur-aska, zurrunban, arrain anbat otzak illik ur bazterrean aurkitzen ba dau arrapatuz, bere urdailla apur bat atxipetzeko asmuz, abiatu zan.

Baiña zoritxarra, arazoak banan-bana, bata bestean atsean geienetan agertzen dira ta, Beko-errotako ur-askako arraiñak euren lo-tokietan, ur epelagodun tokietan, bertan gaba igaroteko asmuz joanda, aurkitzen ziran.

Bertatik asao barik, zurrunba aretatik asao barik, Beko-errotako oillotegia egoan, bertan

oillo eder bat arrapatzea bururatu jakon, eta bereala oillotoki areri ikustaldi bat egiteko asmuz, arantz abiatu zan. Bidean joiala beste burutasun batzuk be izan ebazan. Bururatu jakon Beko-errotako etxaguna, erri ta alboerrietako eiztaririk trebeena zala, ganera bere luki-txakur Pinto ulédun eiztaritzan onenatarikoa, onena ez ba zan, beraz azeri usaiña urrutitik nabaritzen eban.

Zenbat eta geiago oldoztu, Luki zitalari Beko-errotara joateko gurari, naia, otzitzen joakon. Azkenean, azeria otzez eta gosez bizeririk, ilda, gorpu, baño oba zala ta, leenagoko bide-ziorra arturik, Lukito agurtzeko asmuz, abiatu zan.

Arrasti, arratsalde a, sekulako edurtze aran osoan edaturik, ortzi-mugarano guztia zuri-zuri, agertzen zan. Azeriak errekatxu bat zearkatu eban, ze ur garden, gozoa, zurrutada bat egiteko!, bere baitan iñoan, baiña bere urdailako armiarmar-sarentzat edari au, ura, ez zan bordalarikide egokia, atsegingarria. Ibar, aran, polit aren ixiltasuna, errekatxutik bera joian urak eragindako murmur, zurrunkak uts-utsean etentzen eban.

Bidean jarraituz azeria mendiska batera igonda, mendi tontorrean egoan gaztaiñ eder baten orpoan atsedean apur bat artzeko asmuz jazarri zan. Aa zelako ikuspegi zoragarria bere begien aurrean agertzen zan! Bein baño geia-

gotan, bere baitan iñoan, Beko-errotan oillotoko eder-eder bat ostu ondoren, ementxe bertan, zugaitz onein kerizpetan, nasai ta atsegintsu egon naz.

Orduan bai, aran loratsu, orlegia, inguruetako txoritxuak euren txio-txio zoragarriakaz alaiturik, eta an emenka ezarrita ziran basetxe alboko soloetan nekazariak, andra-gizon nekazariak, euren zantzo ta abestiakaz, poz-alai ta atsegintsu bizitzeko, lurgintza lan gogor, neketsua eragozpenik ez zala, adierazoten eben. Orduan bai zan lilluragarria ikuspegi a, bere urdaillak be, bere esker-ona agertzen eutsan. Orain osteria edurra, otza alde guztietatik, ixiltasuna aran osoan, ortu, soloetan ez zan ez zantzo ez abestirik, txoriak mutututa. Baseetxeetako ke-zuloetatik gorantz, zerura igoten eben keezko edoitxuak uts-utsean, bizia ondiño ez zala gelditu, adierazoten eben. Benetan egutaro bildurgarria, batez be euren urdaila kezkatu daukientzat.


Azeri biak aurrez aurrez aurkitu ziranean, onelan bata bestea agurtu eben.

Ola Luki jauna, zer dakarzu emendik? Luki-tok esan eutsan.

Ekarri, ekarri, zer gura, nai dozu Lukito jauna ekarri dagidan, otza ta gosea ugari, egun bi baraurik daroadaz eta, Lukik erantzun eutsan.

Baiña gizona, oillotegitza ta olako txakur-

amesetak bazterturik, zergaitik zeure betiko oiturazko bizi-bidean ez zara saiatzen, ba? Zu ondiño zaarra ez zara, zu sasoizko azeria zara ondiño, ta beraz oillo ta untxi eder-ederrak lapurtu zeinkez. Begiratu eizu nigan, Lukitok iñotsan, nik neure bizi-bidea ez dot aldatu. Baso ta mendietan erbiak euren umeak aziten diran sasoian, abietan erbi-kume anbat edo beste jakitzat izaten dot. Untxi ta oillo, oillosoko eder-ederrak oillotokietan arrapatzen dodaz, eta nasai, atsegintsu bizi naz. Orretarako, nasai izateko batez be, erriko basetxeetako bordari ta etxegunekaz ez dot arazorik, nik euren oillotokiak baketan itxi, utxiten dodaz. Errezago izango litzaket, emen berton, errian, lapurketak egitea, baiña ez nik albo-



Txakurra azeria zigortu naian bere atsean.

errietako oillotoki ta kortatan neuk bear dodan jakia aurkitzen dot. Egia da guztiz urrun joan bear izaten dot jakia billa, baiña ongarrria da. Onelan nire auzokide baserritarrak, nigan euren arerio, etsairik ez dabe ikusten. Euren baxetxe albotik be, eurak agurtu ta ikustaldi bat egitera izan ezik ez naz joaten, eta gure arremanak bikaiñak dira. Beste alde batetik, alboerrietako etxagunak ezagutu be ez nabe egiten, ba dakizu gaba illuna da, ta azeri bat beste battegandik ez da ezbardintzen. Oraintxe emen berton, naizta bart eguraldi kazkar onek eiztan joaten ez zillegi, iru oillo eder eta beste untxi bi sei libra astunak, nire jaki-gelan daukadaz. Ze lodi ta guriak dira, ba!...

Milla esker, Lukito jauna, zure onuakaitik, baiña nik orain bear dodana ez da iñongo aolku, onurik, jaki bero-bero apur bat baño. Nire urdaillaren karrakadak ez dozuz entzuten? Otamen txiki-txikitxu bat baño ez ba da be, zure aolku guztiak baño geiago eskertuko neikezuz. Luki jaunak apal eta abots eskerkorez, esan eutsan.

Tamala da, baiña gaur ez dozu nire laguntzarik, bear ba da beste egun baten izango da, agur. Onelan Lukitok euren alkar-izketa etenda, agurtu eban.

Barriro be emen dogu gure Luki burua makur, belarriak makal eta urdailla kezkatu, beste bide bat, bide barri bat asmatu naian.

Urrun dago baiña, Goikomendi basetxera joatera bearturik naz, eta alan egin eban. Beste aldi batzutan bizkor, saltuka, arin zearkatzen ebazan lurralde areik, arrasti aretan edurtze izugarri bat edaturik zuri-zuri aurkitzen ziran lurralde areik, sekulako gose ta otza lagun ebazala, neketsu, gogor egin joakozan igarotea.

Artez-arte, zuzen-zuzen, etxe azpiko zugaiztia zearkaturik, Gokomendiko atarira abaitu zan. Etxe alboko oillotokian, oilloak kar-kar otarako bidean egozala adierazoten eben. Euren lo-tokian zan otan lekurik onena, bereziena, lortu naian oilloak egiten ebezan kar-kar saratak, gure azeriaren urdail bordarigabea jasan eziñeko kezka, griña gaiztoak bizkortzen ebezan.

Baiña Luki jaunak etxe aretako egazti ta untxiak baketan itxi, utxiteko erabagi zintzoa artuta egoan ezker, aurrera ajola-gabe jarraitu eban.

Goikomendiko atarian aupada bat egiñik, deitu eban. Lukiak, sukaldean mugimendu bat egiñik, argiziri-argi bat atarirantz abiatu zala nabaritu eban.

Nor da sasoi onetan deika dagona?, etxe barretik abots batek esan eban.

Ez bildurrik izan, neu naz, Luki naz. Idegi eidazu atea, arren, bakean nator eta, azeriak erantzun eutsan.

Atea idegi zan, eta ate ostean Txakurto, Go-

komendiko atezaiña, argizai-argi bat eroala, agertu zan.

Zer gura, nai dozu, Luki jauna?, txakurrak itaundu eutsan.

Gabon, Patxori mezede bat eskatu gura neuskio, azeriak erantzun eban.

Patxo bere andreaz goiko gelan, lo-gelan, ogeratuta bero-berotan dago, ta beragaz biar arte ezin izango dozu alkar-izketarik egin. Sentitzen dot. Baiña bakean ba zatoz, or otzak illik egon barik, sukaldera sartu zaitez, neu be emen ate aurrean otzituten nago ta.

Milla esker Txakurto, areziak esan eutsan. Eta biak bata bestean atsetik sukaldera sartu ziran.

Sute, sukaldea, guztiz ederra zan, sartukeran aurrez-aurrez sutegi ederra, alde batera alasa aundi bat suteko tresnak gordetzeko, beste aldean mai txiki bat lau aulki bere alboan eukazala.

Etorri-barriari Txakurtok aulkitariko bat opa eutsan, eta biak sutondoan jesarri ziran. Gaztain enbor mukur lodi batzukaz txingor bero-bero bat lorturik, sukaldean Luki jaunak sekulako egutaroa aurkitu eban.

Jan barik be emen egon daiteke, naizta janda askoz obeto, bere baitan azeriak iñoan.

Gizona, zer dabiltsu sasoi onetan egiten dauan eguraldiaz, eta zerk zakaz ona?, txakurrak itaundu eutsan.

Ara jauna, abots bigun, maitekiro, eskakorraz, azeriak erantzun eutsan, gaba illuntzen doa, ta neure otza ta gosea makaltzeko aterpe txikitxu bat be ez daukat. Ez dozu siñistuko, baiña naizta illuntzea izan, eguna amaitzera joan, emen naukazu ondiño baraurik. Atzo eguerditik ona, ta orduan be oso gitxi, nire urdaillean bordalaririk ez dot izan. Nire itxura errukigarri onek, otz eta gosez erdi-illik nagola, argi agertzen dau. Emen berton, sukalde onetan larregi izango da, baiña korta edo oillotokian okuillutxu baten gaurko gaba igarotea zillegi eistazu. Biotz-biotzez eskertuko zaitut. Biar goizean, egun-sentian, eguna argitu orduko emendik alde egingo dot, ni emen aurkeztetzaz iñor ez da nabarituko.

Zer entzun dabe nire belarriak! Zu goseak eraginda gitxieñez erdi-zoraturik zara!, txakur-rak garrats, txakur etxe-zaintzaille zintzo, deduzko bateri dagokion itzaltasunaz, erantzun eutsan.

Oillotokian azeri bateri lo egiten zillegi! Txakur etxe-jagole ona izango nintzake! Ixildu zaitetz gizona, ugazabak entzuten ba dau, biok kanpoko edurtzera zartadaka eroango gaitu! Bururatu be, asmau be, zulako azeri bateri izan ezik, eziñakoa da asmatzea be, txakurrak tinko, begirune adiskidetasun-gabeaz, izkuntz arrunt, itzaltasun-gabeaz, iñotsan.

Ez dot ezer txarrik egingo, kaltegarririk

egingo, gaba osoa lotan egongo naz, zin egiten dautsut, nire itza emoten dautsut. Dardaraz otz eta gosez ildako baten itxura dot, errukitu zaitetz nigaz! Ze kaltegarririk egin neike nik, zutunik, zutik, egoteko adorea be ia ez ba dot? Biar egun-senti, eguna argitu arteko ostatu eskatzen dautsut. Biarko eguna argitu orduko, nire aztarna ez usaiñik be zure etxe inguruan ez da izango. Ni kanpora, edurttzera bialtzen ba nozu, ordu bete baño leenago gorpu naz. Zulako txakur biotz ondun batek bere giza-barnean, bere baitan, olako eriotz batek eragiten dauan samin, oiñaze amaigabeaz bere bizi osoan ez dau bizi nai izango. Iñoiz Gokomendiko ondasunetan kalterik egin ba dot, ondo damutzen jat, parkatu eistazu.

Luki jaunaren erosta ta negar amaigabeak alde batetik, eta bestetik bere itxura negargarria ikusirik, txakurrak azkenean amore emon eban. Oillotokiko okuillu baten gaba igarotea zillagi eutsan.

Ondo dago, gaurkogaitik zillegiko dautsut gaba oillotokian igaroten, baiña biar eguna argitu baño leenago, emendik guztiz urrun egon bearko dozu. Beste gauza bat, oillotokian dagozan egazti ta untxi ederrakaz, lumatxu baten utsa baño ez ba da be, nabaritzen ba dot, zure azkena bereala izango da.

Txakurrak oillotokira lagundu eutsan, eta, okuillutxu bat erakutsirik, bein eta barriro,

milla bider gitxienez, eskerrak emonez, Luki jauna ta txakurra agurtu ziran.

Oillotokian ixiltasun berezi batek, oillo-txuen kezka, larritasuna, argi adierazoten eban.

Zer egin dau txakur orrek?, oillotokiko biztanleak iñoen. Azeria egazti ta untxiak zaintzen jarri? Gaba osoan azeri orren mugimendu guztien zain egon bearko gara.

Gaba aurrera joian, eta azeria geroago ta nasaia, baiña baita be aitzukorrago. Bere urdaillaren karrakadak gosea bizkortzen eutsan, eta bere amesetatan oilloki guri, gozo-gozoa eban. Baiña ez, lapurketa egazti ilterik ez dot egingo, zin egin dot, neure itza emon dausat, ez, ez da zuzenezko olako zitalkeri, txakurkeririk egitea, bein baten baño ez ba da be, deduzko izango naz, bere baitan olan iñoan azeriak.

Bai ederto, bere urdaillak iñotsan, eta ni zer?, ze uste dozu, ni armiamar-sareaz utsutsik iraun al izango dodala?, geroago ta kezkatuago bere baitak, bere goseak iñotsan. Jaki bigun, gozo, guri erpakada bateaz arrapatzeko moduan izan, eta gosez ilda egotea, zoro batek uts-utsean egin leike. Astokillo bat ez zaitez izan. Ganera oillo bat geiago edo gitxiago, orretzaz iñor ez da konturatuko.

Ara, ba leiteke guztiz oker nire urdailla ez egotea, Luki jaunak iñoan. Azaro onetzaz ol-

doztu ta oldoztu, zer egin ez jakiñik, gurre azeria guztiz kezkatu egoan. Alde batetik bere zin egite ta bere itz emoteak, oillo ta untxiei ikututxu bat egitea be, galazoten eutsoen. Baiña gosea, bere urdaillak bein eta barrero adierazoten eutsan gose izugarria, zelan asetu? Azkenean bere zindozalatasuna baño, goseak eragiten eutsan jan naia, urdailla bete bearra, indartsuagoa zan. Bere burua xautu, garbitzeko, garbitu naian, eta bere barne, baita, kezkatzen eban zin egite ta itz emona ukatzea, bere gogotik baztertu al izateko, oldozkoi alde batera ta bestera geratu barik, ebillen.

Bai, urdaillak be errazoi apur bat ba dau, Luki jaunak iñoan, ordu luzeak jan-gabe daroaz, eta ordua da zerbaitegaz atzipetu dagidan. Oillosko txiki-txikitxu bat lapurtuko dot. Ain-beste oillo, oillanda ta oillosko artean oillosko txikitxu baten utsaz ez da nabarrituko, Txakurto ez da konturatuko. Niretzat oillo aundi, eder-eder bat arrapatzea, ostutzea, bardin izango litzaket, baiña Txakurtok oillo ederraren utsa bereala asmauko leuke.

Egoan okuillutik jagi ta oilloak egozan otarantz abiatu zan, egazti aldrea tartean sartu zan. Oillosko bateri lepoan ikutu, beste oillo bat bere eskuetan, bere astuntasuna zelakoa zan jakiteko, artu, arago egoan oillandea laztandu, ebillen. Azkenean oillosko nabar bat aukeratu

eban. Margo onetako oilloskoak oillotoki onetan ugari dira, ta beraz onen antzekoak asko izanik, txakurra oillosko baten utsaz ez da konturatuko. Bai, iñoan bere baitan Luki jaunak, auxe txikitxu au arrapatuko dot. Asmatu ta egin, leenengo erpakadeaz oilloskotxuaren burua bere gorputzetik zuzterkatu eban, eta beingo baten jan ez, iruntsi be bai. Unetxu batzuk geroago oillosko-eriotze aren aztarrenik, lorratzik be inguru aretan ez zan ikusten. Lumakaz, oilloskoaren lumakaz azeriak zer egin eban ondiño ez dakigu. Oillotoki aretan lunarik be ez zan agertzen.

Gaba a oillotoki aretan, ixiltasunik aundie-nean igaro zan, oilloak ixil-ixilik, mutututa lez egozan, eta Luki jauna oillotokitik aldendu zanean be, euren oiturazko egun-sentiko karkar abestiak egiten ez ziran ausartzen. Egaztiak, azeria oillotoki inguruko bazter anbatan izkututa egonda ta euren saratak, abestiak entzunda barrero ikustaldi bat egitera etorriko zala, bildur ziran.

Baiña ez, gure azeria eguna argitu baño leenago oillotoki ta Goikomendi basetxe inguruetatik, alde egin eban. Onetzaz, oillotokitik aldatze buruz, bere itza bete eban. Ariñeketan, lau-anka, azeriak Goikomendi basetxeko lurraldea beingoan zearkatu eban, gaztañedi abarotsu batetik aran, ibarrera jaitsita, bertako errekatxu baten ur ozkirri zurrutada on bat

egiñik, mendi gora aldatz-gora pike batetik alai, zoriontsu joian.

Orain bai, nago ni mutil jasekoa! Oilloskoa otamen larregizkorik ez da izan, baiña urdailla atzipetuz ixiltzeko aiñako izan da. Nire giroa be alai ta itxaropentsuagoa dot. Mendiska tontorrera eldu zan. Alde batera zein bestera, egoalde, iparralde, sartalde zein sortaldera begiratu, ortzi-muga bardiña ikusten eban. Lurralde osoa, edatze guztia zuri-zuri, edurra alde guztietatik, eta zoritxarra, eguraldia obetzeko itxurarik ez eban.

Unetxu batzutan, une labur batzutan, bertan mendiska ganean, bere birikiak aize garbi, osasuntsuaz betetzen geratu zan. Bertatik, mendi tontorretik asao barik, lau edo bost etxe zuri politak osotzen eben auzo batera joatea bururatu jakon. Auzo aretako basetxen ke-zuloetatik, ke zuri-ñaparrak edoixuak iruditurik, sukalde areitan, etxe arein sutetan, janaria gertatzen egozala, aiderazoten eben.

Bertara eldutean, auzo aretara eldutean, an ez nabe ezagutzen eta, bertako biztanleak, auzokideak, katillu salda bero-beroa emotea, niri emotea jazo leiteke. Baiña ez, ni auzo aretan naizta ezaguna ez izan, azeriak edonun dogu aomen, ospe, ezin txarragoa ta, ezin naz joan. burutasun au baztertu bear dot.

Gure Luki ez egoan Goikomendi inguruko ibar, arantetik urruntzeko. Bere baikortasunean

itxaroten eban gaba, joandakoren antzekoa izango zala, uste eban.

Aran beratan errekatxu baten albotik, beste alde batera joatea erabagi eban, mendi magaletik apurka apurka jaitsirik, troka batera eldu zan. Jakiña, trokan edurtze ondiño be aundiago zan, ostera izkutu-izkutu egoan lez, mendi goiko aize oztak ez eban joten. Satorki anbat billatu naian, edurra aztrakan saiatu zan, baiña alperriko lana, edurrak toki aretan metro-neurkin erdi baño lodiera geiago eban.

Zoritxarrez, ezelako janaririk lortzeko aukerarik ez eban, eta bazkaltzeko ordua urreratzen joian. Bertatik apur bat gorago, baso gurbitz abarotsu baten alboan, erdi-osoturik zan txondor baten goi-aldean egoan txabolatxua ikusirik bertarantz abiatu.

Txabolea ikatzgille barik aurkitzen zan, oneik, ikatzgilleak, eguraldi edurtsu ta gogorra etorrela sumaturik, egun batzuk ziran, euren lana baztertu ta aldendu zirala.

Gure azeria txabolara eldu zan, ta guztiz bere guztokoa eritxion. Bertan su eder-eder bat egingo dot, orretarako egurra zatituta, gertu, ikatzegilleak opaten dauste.

Azeriak txondorretik egur zama polita eroan eban, gurbitz-egurra, sua egiteko berezienetarikoa egurra, ta beingo baten sugar illenditsua ta txingar oparoz, txabolea guztiz bero egutaro sekulakoa izan eban. Ikatzegilleak eurentzat

gertuta ebezan laztozko ogetariko bat, berantzat antolatu eban, bertan nasai-iztarrak luzatuz, etzun zan. Noizbait txondorrera bidali bat egin, egur batzuk ekarri ta sua beti biztuta euki, ori izan zan bere lan guztia.


Emen bai, bere baitan iñoan, inguruetako lurraldetan agertzen dan edurra urtu arte, emen ederto biziko naz. Oillotokian baño be emen... obeto egongo naz. Oillotokia gogortzean, bere barnean, bereziki bere urdaillan, orrelako zirikatze makal bat izan eban, senti eban. Ostaetxe jasekoa da au bai, baiña jakirik ez ba dot, gaba luzeegia egingo jat. Ikatzegilleak ondo jaten dabe, euren lana guztiz gogorra izanik, egunero bereziki elikatu bear izaten dabe. Nire urdailla kezkatu izan ez daiten, txabola onetan zerbait jateko egotea, arritze-koa ez litzake izango.

Lukik txabolako bazter guztiak arakatu ebazan, txabolako lazto ta ira guztiak mugidu ebazan, guztia ankar gora ezarri eban, baiña alperriko lana izan jakon. Arto, talo edo morokil zatitxu bat be ez eban aurkitu.

Eguerdirantz eguraldia apur bat beratzen, argitzen joiala eritxion.

Eguraldia olan obetzen jarraitzen ba dau, gaba erdi baño leenago, edurrak urtuak izango dira, eta izkututa dagozan erbi, basa-untxi, ogi-gaztae, mozorro ta txori guztiak, ni bezela gosez illik egongo dira, ta erdi itsututa, gosea

Azeria oillo aldra bat zaintzen.



gogorra da ta, janari billa kanpora urten bear-ko dabe. Orduan errez nire urdailla betetzea izango jat. Arazo onetzaz ez dot zergaitik arduratu bear. Ostatu ederra dot, bero-bero aurkitzen naz, gose gose nazala be ezin neike esan. Bart oillosko bat jan neban, naizta aundi, gizensua ez izan, eskerrak berari nire urdailla ez da kezkatu.

Baiña Goikomendiko basetxera itzuli gaitzan. Bertan zer jazoten zan, jakin dagigun. Oillotokitik Luki jauna igeska aldendu zanetik, ango biztanleak larri, arduratsu bizi ziran. Oiturazko goiztar oillo kar-kar otsak ia eguerdi arte ez ziran entzun, oilloak bildurrez bakoitza bere tokitxuan jarraitzen eben, ixil-ixilik, mu-

gimendu bat be egin barik. Azkenean oillarrak ots aldunagaz kukurruku bat egifik, bere menpekoei esan eutsen.

Egun barri baten asieran gagoz, emen otan geldigeldi ta jan barik egun osoan ez gara egongo, ez? Jaitsi gaitzan, eta bart ogeratu baño leenago Txakurtok beti lez askan itxi, utxi, euskuzan arto ta gari garoa jaten, ezer jazo ez ba zan bezela, joan gaitzan.

Otako eskilleratik banan banan egaztiak jaitsi ziran eta bakoitzak bere otamena jan eban. Biroa bete bete eginda, itz, berba, egiteko gogoia eurakan bizkortu zan. Barrero oillarrak, aldrako nagusi bateri dagokion bezela, onela iñotsen.

Dan danak ikusi zenduen zelan Luki jaunak bart Errufiño oilloskoa arrapau il eta jan ebala. Une onetan gure egin-bear berezia, gertaera au gure zaintzailleari adierazotea da, Txakurtori esatea. Baiña zuen aurpegietan bildurraren irudi ber-bera ikusirik, leenago zuen eretxia jakin nai neuke. Beraz zuen txanda da.

Aldrako oillo gangar margo-gabedun batek bere moko, pikua, jaso eban eta esan eutsan.

Oillar jauna, zuk dirauskuzuna egitea da zuzena, baiña beti zuzena dana ez da izaten egokiena. Ara begiratu dagigun. Tamala da, biotzbiotzez gure oillotokikidearen eriotzea sentitzen dot, gogoratzeaz uts-utsean be, nire barne, erraiak biurkatzen jatatz...! une onetan azeri

maltzur a neure aurrean izango balitz...! pikekadaka ilgo neuke. Baiña oldoztu dagigun, bearrezkoa da une onetan gure biotzak otz eta gure adimen, burua, argi izatea. Arazo onetzaz gure erabagia, zalekeri edo griña gaizto anba-tek eragiña ez dau izan bear. Guretzat, danontzat, mezedegarri, onuragarri ta ez kaltegarria izango dan erabagi bat artu bear dogu.

Baiña andrea!, zure itzaldi baketsu ori amaitu eizu. Zure eretxia arazo onetzaz, arazo onen buruz, adierazi euskuzu, gaztetasunak eragiten dauanugar, adore, atun-gabeaz, oillosko gazte batek, oiuka iñoan.

Nasai, gazte, lasai, oillo gangar margogabedunak, erantzun eutsan. Beingoan zure eretxia azaltzeko txandea izango dozu, baiña leenago nasaitu zaitez, jakin eizu arazo onetzaz biotzez baño buruaz geiago itz egiten saiatu bear dala. Unetxu bat leenago oillar jaunak esan dausku, gertaera onen albistea, barria, gure andra-gizon ugazabari jakin-eraztea bearturik garala. Egia da, zuzena, deduzko ori da. Baiña erabagi au artu baño leenago, guretzat ze ongarri edo kaltegarria dan oldoztu bear dogu.

Gure etxagunak, ugazabak, gertaera au jakiten ba dabe, oilloak jarraitu eban, Lukia zigortu gura, nai, izango dabe. Eriotz bat zigorgabe geratzea ulertu eziña da ta. Jakin bear dozue Lukia azeria dala, ta zelako azeria! Lumadun arrapatzaille trebeenatarikoa izanik,

berak be, azeriak be, salatari edo salatariiek zigortzea nai izango dau, ta egia esan, nik neure sendian ez-bearrik izatea ez neuka nai, gura.

Beste oillosko gazte, biotz gartsudun batek, oilloari bere izketa geldi-arazi eutsan, esanez:

Eriotz au ixillean izanda, baztertzen ba dogu, gure ugazabak, Txakurto gaur egun gure jagole dan ber-beragaz jarraituko dabe, ta nok ziñestatuko dausku, beste gau baten txakurra, gure jagolea, loak artuta, azeria ikustaldi bat egitera etorriko jakula? Ez, ez, Lukik bere zigorra izan bear dau!

Azaldu bear dot, oillotokian Txakurtoren etsaik batzuk ba zirala. Bere lana dala ta kez-katsu ziran batzuk. Txakurraren aretioak, geienak oillosko-oillanda gazteak ziran. Aldra onek oillotokia zaindu, jagoteko, irukotza bat izendatzea nai eban, au da, txakurra alde bate-tik, oillo bat eta oillosko bateaz irukotea osotuz. Ori bai, oillo ta oillosko oneik otamen berezia izango eben, eukiko eben.

Leenago aitaturtako oilloak adierazpen au, eurentzat, irukote orrentzat ardura, erantzukisun guztia izatekotan, ados egoan. Oilloak bera ta bere sendi osoa azeriaren aierkeri zitalletatik kanpo, arrisku-gabe, izan nai eban.

Egazti aldra artean murmur, kar-kar ixil-txuak entzun ziran, eta barrero leenengo itz egin eban oilloskoak barrero itzaldi barri bat egiten saiatu zan.

Guk, oillosko-gazte taldeak Leandra oilloak esan dauana ez dogu ontzat artzen. Arazo onetan danok dogu zer ikusi, ta ez gitxi. Eztabaidatzen saiatzen garan arazo onetzaz artuko dogun erabagia, gure ta gure ondorengoen etorkisunaren giltza da. Beraz, danona da ardura ta premiñazkoa. Erantzunkisuna danona, gu guztiona izan bear dau. Danok alkaturik, danon laguntza gabe, gure geroa atsegintsu, baketsu izatea, gaitz, zail, izango jaku.

Itz, berba, politikak, antzekoak nonbaiten bat baño geiagotan entzun doguz.

Bitartean oillotokian dana zan sarata, oiua ta bakoitzak bere eretxia bestearen, lagun-urkoaren ganetik gaindutzea. Zalapart, oiukatze, aundiena zanean, ara non, Txakurto agertzen dan. Danak ixildu naian abots garrats, indartsuaz, esan eutsen:

Zer jazoten da emen? Nok edo zerk zalapart, sarata izugarria eu eragin dau? Ze zio da zuek ain urduri egoteko?, oiuka oillotokiko jagoleak garrats, abots gartsudunaz, esan eutsen:

Ara Txakurto jauna, oillotokiko okuillu baten ixil-ixilik, apal egoan oillo zaartxu batek, esan eban.

Leengo gaban berorrek uts negargarri bat izan eban. Lukiri oillotokian gugaz gaba igaroten zillegiteaz, uts, osakaitz izugarria izan eban.

Azeria gaba aretan, Txakurto jauna, oillo zaartxuak jarraitu eban, guztiz baketsu, zentzudun agertzen zan, bertako, oillotokiko, egaztietei ezelako ikuturik, itz, berba, txarrik ez eze begirekada gaizto, maltzurrik be ez eban izan. Bere tokian geldi-geldi, mugidu be egin barik, leenengo ordu biak emon ebazan, baiña gero, ez dakit zerk eraginda, alde batera ta bestera begira, urduri agertzen zan, bear ba da gosearen ondorio izango zan. Izan be, azeria izan ez ba zan, beragaz errukitzeko itxurea eban. Itxi, laga, eban bere tokia ta saltu bat egiñik gure ota ganean izan zan, gure artean, egazti danan artean. Orduan bere begiak bizkortu jakozan, gurarizko begirekada, bere gurarizko begirakadak, gutariko anbateaz afari ederra izango ebala, argi agertzen eben. Alde batetik bestera, oillo bat lepoan ikutu, oillosko bateri keiñu bat egin, beste bat bere erpakaz, ze astuntasun eban jakiteko, artu. Gaba osoa azke ebala esan euskun, eta beraz larritasun barik, premiña gabe ibilliko zala. Uste neban, egaztirik gizen, lodi ta bigunena ilgo ebala, baiña ez, astunena ez eban artu ez.

Nire illoba Errufiño, oillosko gazte, azkar, bere sendia guztiz maite ebana, azeri eriotzaille zital arek indarrez kendu euskun. Geure begien aurrean il eta jan eban. Biotz-gabedun eriotzaille arek, mendekatzea ez ba da be, zuzenbidez erio-zigorra izango dauala uste dot.

Nik, eta oillotokiko kide guztiok, azeriak bere zitalkeriaren zigorra ori izanik, ordaindu dagiala, berorreri eskatsen dautsogu.

Adiskideok, eriotz orretzaz jakitun nintzan, Biramonean, Errufiño ilda urrengo egunean, oillotokian bere utsaz konturatu nintzan. Ziur izan nire lagunok, Luki zigortua izango da, zigor berezi-berezia izango dau. Zigor orren buruz, azkenengo orduetan asko oldoztu dot, eta bene-benetan dirautsuet, eriotzea bera baño be zigor gogor, astunagoa izango dauala. Zuen guztion aurrean zin egiten dot.

Baiña bitartean, Luki jaunaren txabolan, zer jazoten zan? Goazen bertara. Eguna argitu zan, baiña edurra ta ekaitza otz eta gosez ki-deturik, alkaturik, bidalikide negargarriak dira. Azeriaren txakur ametsak, orretan amesetatan geratu ziran. Inguruetakoko lurraldetan edurra, edurtze, arteroko egunetan aiñakoa. Luki, bein eta barrero txabolako atera urtenda, eguraldi, egutarao, geroago ta gogorragoa zala konturatzen zan. Bere urdailla pozteko txori battxu baten be txio-txio alairik ez eban entzuten, ardi, auntz edo artxo anbaten bekokortxu bat be bere belarrietara ez jakon el-tzen.

Zer egingo jot nik, bere baitan iñoan, olan jarraitzen ba jok, berton otz eta gosez il bear jot... egurra billa joateko be, laster indar, adorerik ez jot izango... baiña nora joan? Goiko-

mendi basetxera barrero? Ez, ez, mutil onak egongo dozak areik!... Baiña nora joan?... Senide, aide ez lagunik be ez ba jot, nora joango nok ni?...

Bere urdail kezkatuak eraginda, burutasun bat baño geiago izan eban, ameskeriak. Txori, erbi, bas-untxi ez basauntz baten aztarnarik be ez eban ikusten. Orrez ganera, lurralde guztiz edurrez zuritu aretan edozein eiztarik naizta guztiz trebea ez izan, leenengo dabadeaz ilgo eban. Txabolatik urteteko arrapakin errezegia zan. Ain illun ikusten eban gaba a igaroteko, zein urten-bide onuratsuen izango jakon oldoztu ta oldoztu, burutasun, asmaketa guztiak, Goikomendi basetxera eroaten eban.

Goikomendi basetxera joango naz, iñoan azeriak, leengo gaban nire jokaera ez zan izan bat be deduzko, zuzena, baiña nik neure urdaille an neban jasan eziñeko gose izugarriak eraginda izan zan. Nik neure itza betetzea nai neban, baiña gai onen buruz, gosearen indarra, nire zin egitearen indarra baño aundiagoa zan. Gertaera onek, nik egin neban eriotz negargarria ez dau zindotu ez zurikatzen be... baiña egiña egiña da, ta goseak era guztietako eriotz izugarriak, bere giza-barnean dauz.

Sarritan gure asmakison, amesetak, geuk nai doguna, guretzat onuragarriena danatzaz izaten dira, baltza zuriaz naasturik zuritu naian, eta zitalkerizko egikison lotsagarriak, soin-

gain zuri, oben-gabeaz estalita, inguratuta, agertuz.

Azkenean gure azeriak Goikomendi base-txera joatea erabagi eban.

Bai, iñon ondoen antxe izango naz, iñoa azeriak, Arrapau ta jan neban oillloskoaz, ain-beste oillosko, oillanda ta oillo artean, egazti txikitxu baten utsa, nabarituko ebenik, ez dot uste. Bere burutasun au be, berak nai, gura, ebana zan, eta ez beraz jazo leitekena.

Illundu orduko emendik urtengo dot, eta Txakurto lotara joan baño leenago beragan aurkezturik, gaba otz ekaitzdun au igaroteko ostatua eskatuko dautsat.

Alan egin eban, bere txabola, egoitz, epele-tik urtenda, izkutuka, zugaitz osetetik zugaitz ostera, muga ta zaztraka sasi ta adarr abarotsuetatik, Goikomendi alboko, aldameneko gaiztañedira eldu zan. Basetxeko atarira une luzetxuan adi-adi geraturik, barriro bere asma-kisunetan so-egiñez, guztiz zalantzan zan. Zer egin? Goikomendi atarian dei egin? Etorri zan bidetik iztuli? baiña nora joan? Berari bertako oillotokian lo egiten, gaba igaroten zillegiko eutsan, beste txakur etxe jagole bat, non aurkituko eban? Baiña Txakurto jaunari oillosko eriotz aren zio guztia nire izugarrizko gosea izan zala, zelan siñist araziko dautsat? Zelan Txakurto siñist-arazi, barriro egazti arrapa-tze ez eriotzik ez dodala egingo? Une onetan

berantzat, Txakurtontzat, nire itz-emoteak ez dau baliorik. Auzoko astoaren arrantz sarata-tsuak baño be, Txakurtontzat nire zin-egitea balio-gabekoagoa da. Alan da guzti be, ez dot beste urtenbiderik, bereala baragan aurkeztuko naz.

Gaztaiñaditik urtenda, geldiro-geldiro, lepoa makur, ixil-ixilik, arnasea be artu barik, karkaba estutxu batetik igonda, oillotoki aurrean egoan txakurtokian dei egin eban, deitu eban.

Gabon Txakurto jauna, zelan zara?, Azeriak agurtu eban.

Arraio arraioa!, Luki jauna i az, barriro be emen az!, Txakurtok erantzun eutsan.

Bai, barriro be nire otz eta gose onek eraginda, berorren biotz ondun atean, gaba onetarako ostatu eskatuz, deitzera etorri nago.

Demontrez! zer zentzuten jot nik, ostatua esan dok? Ostatu, gaba osoa azeri bateri oillotokian igaroten zillegi? I burutik ez ago ondo. I zoroetxe baten obeto egongo litzake, Txakurtok iñotsan.

Txakurrak azeria mendekatzeko asmau eban bidean jarraituz, aurrerako gaban oillotokian jazorikotzaz, azeriari ez eutsan ezer aitatu. Berak, txakurrak, ez-jakin egiten eban. Berak, txakurrak, oilloskoaren eriotzaz ez ekiala ezertxu be, adierazten eutsan.

Baiña emekiak berbatsuak izaten dira, egaz-

tietan be bardin jazoten ei da ta, ara non, Errufiño, azeriak arrapau ta il eban oilloskoaren amama, otan egoan lekutik saltukadaka urtenda, oiuka zelan iñoan:

Ori izan zan Txakurto jauna, bai, leengo gaban nire illoba Errufiño il eta iruntsi eban azeri zital, maltzurra. Il bedi jauna! Eriotza berantzat!

Bai, il bedi jauna! Eriotza berantzat!, oillotokiko egazti-aldra osoak oiuka iñoan.

Arraioa, ixildu zaiteze danok! garrats, abots zemaikorrez, bera be oiuka, Txakurtok iñoan. Azeriak zuzenezko epaia izango dau, ori ziur izan, ez zalantzarik izan. Baiña berak be auzi onetan, gertaera onetan, bere burua babesteko esku-bidea dau. Beraz zuzena da, bere esku-bide au guk ontzat artzea. Entzun dagiogun ba, ia Luki jaunak auzi onen buruz, auzi onetzaz, zer diñoskun.

Ni ez nintzan izan. Oillo edo dana dalakoa eroan ebana, ni ez nintzan izan, aurpegi gogorragaz, Lukik esan eban.

Zu izan ez ba ziñan, nor arraio izan zan ba?, Txakurtok geroago ta garrats, asarreago, iño-tsan.

Ba, ni ez nintzan izan, jarraitu eban azeriak. Nik oillotoki onetatik ez egazti ez untxirik be iñoiz ez dot arrapau. Egazti aldra au, auzi onetan gezur-aitorleak dira. Ni azeri, eiztaria, izanik, eta ori ez dot iñoiz ukatu ta ez dot uka-

tuko be, nire kaltegarriako izan leitekezan egikisun zital guztiak, oillo mika oneik asmauko dabez, Lukik tinko iñoan.

Zu izan ez ba ziñan, nor izan zan ba?, Txakurtok iñoan. Ziur be ziur naz zu izan ziñala. Neu naz errudun bakarra, neuk oillotokian gaba igaroten zillegi neutsun. Zure zin egite ta itz emotea, siñistu neutsun, neurea da errua. Zelan nire andra-gizon ugazabaren aurrean aurkeztuko naz? Zelan zindotuko dot nik, neure txakurtokian ixil, ixililik, zaunkada bat egin barik, nasai, gaba osoan egon nintzala, ta zu ez beste azeririk Goikomendiko oillotokian gaba aretan ez zala egon? Autortzen ez ba dozu, zeu izan ziñala, autortzen ez ba dozu, ta orretzaz ez dot zalantzarik, egi osoa ez ba diñozu, geiagotan oillotokian lo egiten ez dau-tsut zillegiko.

Asieran azeriak bere erru-eza tinko babesten eban, baiña apurka-apurka makaltzen joian, eta azkenean bere errua aitortu eban.

Ara ba, bai, neu izan nintzan, oilloskoa lapurtu ta il ebana neu izan nintzan, bere burua apur bat makurturik, apal, azeriak esan eban.

Eta zure zin-egintza? Zuk emon zeustan itza? Zelan emon zeustan itza ez zenduan betetu?, txakurrak diñotso.

Gaba aretan iñorena ez artzeko gogo bizi-bizia nebañ, nai neban bete nire itza, emon neutsun itza, baiña sarritan azerikeria, gogoa

baño gogorrigo, indartsuago izaten da, iñoan azeriak. Geiagotan ez dot egingo, barriro ez dot egingo.

Leenen-leenen, azeriak jarraitu eban, oben astun bat egin nebala, aitortu bear dot. Oilllosko gazte, erru-gabe a ilteaz, obendun, gaizto, biotz-bako baten irudi ber-bera zuen artean izan bear dot. Baiña gertaera, egikisun guztiak, edo geienak, euren zio berezia izaten dabe.

Gogoratu dagigun, ain esker-beroz eskertu zinduedazan gaba edurtsu a. Zuen adimenean izango dozue, uste dot nik, zuen aurrean aurkeztu nintzanean neban otz eta gosez ildako baten itxurea. lau egun luze, euren beste lau gabaz jan barik edurtze onetan, izaki biotz gogordunen aurrean be, zitalkeri bat edo bestedun aitorle zintzo bat agertuz, eta parkamena, bere oben eta zitalkeri guztien parkamena eskatuz, pekatariaren naia lortzea zuzena da. Biotz-biotzez parkamena eskatzen dautsuet. Geiagotan olako zitalkeririk ez dot egingo, azeriak abots maitekiroz, eskakorrez esan eban.

Ez dozu geiagotan egingo ez, orretarako aukerarik ez dautsut emongo. Goikomendiko oilllotokia geiagotan zure ostatua ez da izango, geienbat neure txabolan, txakurtokian gaba igaroten zillegiko dautsut, eta bertan be lokarri, kate onegaz, lotuta, Txakurtok beragaz

apur bat errukiturik eta lagundu naian, diñotso.

Txakurto, bere txakurtokian azeriari gaba igaroten zillegiteko gertu egoan, ori bai, kate gogor bateaz ondo lotuta. Zuzen be, berak. Txakurtok asmau eban zigorraren zati, atal, bat zan.

Ala, aurreratu zaitetz, erdu txakurtoki onetara kate onegaz lotu zaidazan.

Baiña lotuta? esan eban azeriak, bera azke bizitzeko jaioa ba zan!

Gure gizarte onetan ori jazoten da. Norberan askatasunagaitik, bakoitzaren askatasunagaitik, alde, borroka gogorak, baiña besteen askatasuna, lagun-urkoaren askatasuna, menperatu, zapaldu.

Ganera zitalkeri, azerikeririk egiteko gogo, asmurik ez ba dozu, nire txabolan epel-epeletan ederto lo egingo dozu, ta biramon goizean, goiztar oillar kukurruku ta oillo onein kar-kar abesti alaiakaz, atsegintsu izartuko zara.

Gure azeriak gaba ekaiztdun aretan aterpean lo egitea nai ba eban, bertan lotzen bearturik zan, ez eban beste urten-biderik, azkenean txakurtokian kateaz lotuta gaba emoteko, gertu egoan.


Txakurtok azeria kate lodi-lodi bateaz loturik, onelan alkar agurtu ziran.

Gabon Luki jauna, biar goiz arte, lo ondo egin dagizula, gabon.

Azeriak itz, berba, bardiñekaz agrutu eban, eta bereala txabolan sartu zan.

Bai, emen ederto egongo naz, emen ederto egingo dot lo, iñoan azeriak. Biar goizean txakurrak nire gose-itxurea ikusirik, gozari bero-bero, ederra opetsiko daust. Bai, argi dago, txakur au, Txakurto, izaki biotz ondun bat bene-benetan dala.

Nasai-nasai, bere iztarrak luzatu ebazan eta ederto lo egiteko itxaropenez, txakurtoki edatsu aretan, etzun zan.



Azeria oillo eder eder bateaz amesetan.

Gaba aren leenengo ordu biak, ondo igaro ebazan, nasaiturik lo-zorrotxu bat be egin eban. Baiña Neguko gabak luzeak izaten dira ta, azeria goseak eraginda urduri, egon-eziñik aurkitzen zan. Txabolan kate gogor bateaz lotuta, Luki jaunaren etorkisuna, gaba edurtsu ta ekaitzdun a baño be illunagoa zan. Bere urdailla gosez karrakadaka ta bere mustur aurrean oillo ta oillosko gizen, lodi ugari ta bere gose ikaragarria ezin asetu.

Zuzen be auxe zan Txakurtok azerientzat, azeria zigortzeko, bururatu, asmau eban gertaera berezia. Azeri, lukia, untxi ta batez be egazti eiztaririk trebeenatarikoa da. Berantzaz okelea, oillokia jakirik gozo, ongarriena da. Bere lapurketak geien bat oillo ta bere senide, aide, oillosko, oillanda ta oillarrak izaten dira.

Guzti au olan izanik, eta olan da, begiratu eizu irakurle adiskide, txakurtoki baten, oillotokian txabola baten luki bat kate lodi gogor bateaz loturik, ondo be ondo lotuta, ta bere aurrean, bere mustur aurrean egazti aldra aundi bat, guztitara ogeita amar bat egazti gizen, lodikote, samur ota ganean kar-kar txantxetan, azeriaren ardura-gabe alkar-izketan, eta ondiño geiago bere urdaillaren utsunea, gosea, aunditu naian bata besteari esaten:

Isabel nire adiskidea, otatik bera jaitsiko gara. Txakurtok atzo illuntzean itxi, utxi, euskun arto-ore gozo apur bat jaten, jaitsiko gara?

Nik otatik jaitsita arto-ore dagon askara la-
gunduko dautsut, baiña jaten ez, ez nozu ikus-
ten ba ze lodikote nagon? Nirre bular ta izar
gizen, mamitsuak ez dozuz ikusten? Lodiegi
nago, ta geiago jaten ba dot, astunen astunez
lotara joateko otara be ezingo naz igon.

Bai egia da Petra, Isabelek bere adiskideari
iñotsan, zu benetan lodikorra zara. A zelako
kazuelakada saltzan, or bean lotuta dagon aze-
riak, lukiak, zure okelakaz egingo leuken!...
Kontuz ibilli zaitez!...

Ara Isabel, ni ez naz guztiz ados zugaz. Luki
jaunari oillo lodikote, okelatsuak ez jakoz la-
rregi guztatzen. Konturatu zaitez, Errufiño oi-
lloskoa, Errosaren illobea, or bean lotuta, eta
eskerrak ondo lotuta, dagon orrek arrapau ta
jan eban egaztia, ez egoan bat be lodi, ostera
oilloskoaren okel-urria ez jakon izan eragozpe-
nik, ni ta beste nilako oillo lodi-lodi, gurien
artean, gaba aretako afarirako Errufiño auke-
ratzea, otatik erdi-saltuka erdi-egazka jaitsi-
rik, Petrak erantzun eutsan.

Bai Petra, zuk dirauskuzuna egia da, ta ger-
taera orren buruz, buruko min ugari izan dot.
Oldozkor, pentsakor azkenengo egun bi onei-
tan naz. Nire buru txikitxuan ezin jat sartu,
zelan oillar, oillo, egazti ain eder eta guriak
bazterturik, Lukik oillosko argal, kozkor bat
afaltzeko, gaba aretan afaltzeko, aukeratu eban!

Gaba aretan Luki, ota ganean egoan Pan-

txike eritxon oillo adiñeko batek, esan eban,
jangartsu izango zan eta. Konturatu nintzan,
Petra, zure albotik igaro zanean, oillo bateri
ikutu beste bateri begirekada bat egin, zure
iztar gizentsuetan adi-adi geratu zala. Une
orretan ziur nintzan, azeriaren leenengo erpa-
kadea, bere erpa ziñiñak zure lepo, okela gu-
rietan izango zirala. Zorionez zuretzat, olan ez
zan izan, Errufiño oillosko errugabea naizta
argal, zimela izan, bera arrapau ta jan eban.

Ordurarte ixil-ixilik egon zan oillarrak, oi-
llokiko nagusiak, kukurruku luze bat egi-
ñik, bere aldrakidei esan eutsen.

Andra adiskideak, Luki jaunaren aurrean,
ementxe berton, mai-jabe, ezteidun, itzura
makalekoak gara. Bere jangabetasuna, bere
aurpegia, otz eta gosearen irudi ber-bera dirala
ta, baraurik dala argi agertzen da, ta guk, gaba
ederto igaro ta gozari oparo ta gozoa izan do-
gunok, berari, azeriari, bere urdailleko karras-
kadak makaltzeko, janari apur bat ez dautsagu
opetsi. Bakoitzak bere otamenetik apurtxu bat
zergaitik ez dautsagu emoten?, oillarrak irri-
barre maltzurrez, kukurrukuka esan eban.

Ori ezelan be ez! Ori iñoiz be ez!, oiuka kar-
kar egazti aldra osoak iñoan. Leengo gaban bere
jokaera deduzko, zintzoa izan ba zan, Txakur-
tori emon eutsan itza, bete ba eban, gaur emen
berton gure aurrean lokarri, kate gogor bateaz
lotuta, otz eta gosez illik, ez zan egongo. Gure

laguntza, babespena ta zelan ez, janari ugari eukiko eban. Berana da errua, beraz merezitako ordaiña bear dau, zigortu bear da!

Ondiño be zigor gogorragea!, Lukik bere baitan iñoan. Txakurtok txakurtoki onetan lotu ninduean, eriotz-zigorra erabagi ba eban, nekaldi, oiñaze oneik ez nebazan jasan bear izango. Gosea, nik dodan gosea, izaki gogor, sendoena be amorratu-araziteko aiñakoa da, orrez ganera, otza laguntzaille berezia dau goseak nekaldi, oiñazeak aundiagotzeko. Baiña geien kezkatzen, minduten nauana, neure mustur aurretik saltuka ta iraiñez betetik alde batetik bestera ibilli, euren iztar eta bular mamitsuak erakutsi ta euren artean erabiltzen daben alkar-izketa beti janaritzaz izanik, egazti aldra au ikustea da. Zigor au eriotza baño be, milla bider gogorragea da.

Zu Erramona, arrautz ipiñi-barria zan oillanda eder batek, bere lagun bateri esan eutsan. Ba dakizu gaur askatasunaren jaia dala ta jai au ospatzeko gure andra-gizon ugazabak, eguerdiko bazkarirako otamen berezi bat emongo dauskula? Arto-ore, arto-opil, eder eder bat, esne gozo-gozoaz eginda, emongo dauskula? Txakurtok be baztaltzeko, eurak, ugazabak daukien artxo-zaltzako azur eta ondakin gozo-gozoak eukiko ei dauz, ondoren esne katillukada bero-bero bat... Ja! Ja! Ja!...

Txantxeta barregarri onek azerientzat, Luki

jaunantzat, irain mingarri, zirikariak, ziran eta bere gose ta amorrua jasan eziñekoa zan.

Baiña onetan ara non Txakurto jauna agertzen dan, eta azeriari iñotsan.

Egun on Luki jauna, zelan igaro dozu gaba? Lo ondo egin dozu?

Ederto azeriak erantzun eutzan, naizta emen txakur usaiña egon. Noiz azkatuko nozu, Txakurto jauna?

Beingoan, itxaron apur baten, eta bereala txakurra oillotoki sarturik, egazteiei, diñotse.

Leengo gaban zuen laguna Errufiño il ebana, nire txabola aurrean lotuta daukat, ori ba dakizue. Bertara goazen danok, eta zuek banan banan bere mustur aurretik banan banan, igaroko, zarie.

Egaztiak karkaxaka oillotokitik aldran urtenda, oillotokitik urtenda, azeri, Lukin aurretik, bere mustur aurretik banan banan, leerroan, barreka, maltzurkeriz iraundu naian, azeria iraundu naian, igaro ziran.

Salkuntza egin daustazu, azeriak txakurrari diñotso.

Baita zuk be niri leenago, txakurrak erantzun.

Zergaitik egazti guztiak dakarstazuz nire musturren aurrera?, Luki itaundu eutsan.

Leengo gaban zeuk jan zenduan oillokkoa, zein dan jakiteko, diñotso txakurrak.

Baiña leengo egunean jan ba neban, zelan

ikusiko dot emen ba?, azeriak erantzun eutsan.

Oillotxuak, zuen lagun Errufiño oilloskoa leengo egunean eroan ebana, au da? Leenengo egaztia atrapau ebana eroan eban?, txakurrak itaundu eban.

Orixe da bai, oilloak algaraka danak batera esan eben. Baiña leenengo aurkitu ebana ez eban eroan. Bai zera, gaba osoa azke ebal esan euskun, eta oillotokiko egazti guztiak banan banan ikusten ibilli zan. Oneri lepoan ikustu, besteari kiñuka txera batzuk egiñez, leia, premiarik ez eban adierazoten, baiña kezka bat dogu. Luki jaunak, oillotokiko otan lo egiteko asmuz igonda aurkitzen ziran oillo eder, gizensuak, eta orrelakoak gure artean, gure oillotokian, ugari dira, baztertu ta Errufiño oillosko argal eta ganera txikia, zergaitik arrapau ta il eban? Au da gure kezka, ez dogu ulertzen, gure buru txikietan, naizta luzero oldoztuten saiatu, erantzun siñisgarririk ez dogu asma-tzen.

Zuzen be nire gogo-onaren ezaugarri bereziena ortxe dago, azeriak esan eban. Nik bete nai neban emoneko itza, berbea, nire asmakisunetan untxi ez egaztirik arrapatzea ez ilterik ez zan agertzen, baiña gaba aretan, ez dakit zenbat ordu aginkada bat be emon gabe, nire urdailla uts-utsik eta orrez ganera izugarrizko otza lagun nebala, nire egoera jasan eziñekoa zan.

Neure baitan, gaba aretan bein baño geiagotan egazti bat artu, il ta jateko gurari bizi-bizia izanik, niñoa. Ara Luki, Txakurtori emoneko itza gogoratu eizu... untxi ez egaztirik oillotoki onetan ez dozu lapurtuko zin egiña... gogoratu ezizu... Baiña gosearen indarra aundiagoa zan, karrakadaka, kezkatu ebillen nire urdaillak, iñostan, baiña gizona, jan barik bizi al izango zarala, uste dozu ala?, ainbeste jaki, oilloki guri zeure musturrren aurrean euki, ta gosez il, zoratuta zara ala? Egazti aundiena bat izan barik arrapatzen ba dozu, emen aldra onetan, bere utsaz nor konturatuko da ba?...

Nire urdaillaren deiari jarraituz, saltukada bateaz oillotokiko ota ganean izan nintzan. Ainbeste oillo eder ikustean, nire begiak eta baita be nire erpak egazti lodienetarantz joaten ziran, baiña ez, oillosko txiki ta argalenatariko bat arrapauko dot, eta alan egin neban. Oillosko argaltxu aregaz nire gosea guztiz ez zan asetu, baiña eriotz ziur batetik baztertu ninduan. Nire naia Goikomendi etxagun biotz ondunari kalterik txikiena egitea zan. Errufiño oillosko argala lapurtu ba neban, beste egazti eder batzuk baterturik, oillosko argal bat lapurtu ba neban, gaba aretan jakan nintzalako ez zan izan, ez, baiña naizta sekulako gosea izan, zerbaitegan ez ba zan be, nire itza bete nai neban. Or dozue ba, nire egikisun orren zuriketa edo atxakia. Emen lotuta eukiteaz,

oben txikiaren orde, naiko zigorrik izan dot. Txakurto jauna, noiz azkatuko nozu, ba? Irain au ez dau sut errez parkatu al izango, azeriak min-miñez esan eban.

Irain, irain utsa ez zan. Azeri batentzat, ainbeste oillo eder-eder, gizensu bere musturren aurrean ikustea ta bera gosez illik egotea, ba dakizu irakurle, zer dan? Zalantzarik gabe eriotz-zigorra bera baño be zigor gogor, min-garriagoa.

Bazkal osterarte ez zaitut azke itxiko, ondiño apur bat geiago nekarazi bear zaitut. Goi-komendi basetxeko ke-zulotik jasoten dan ke zuri-nabarra ez dozu ikusten? Aize iparrak onantz bultzaturik, laster zure zur-zulotatik usain gozo-gozo bat arnasatuz, zure urdailla bizkortu ta gosea aunditu egingo dautsuz. Nire ugazaba andra-gizonak euren zidar-estegua dala ta, sekulako bazkaria gertatzeko asmu dabiltz. Atzo zortzi libratik gorako zan arkume lodi, guri bat il dabe, Lenen leenen arkume tripotxakaz tomate-saltza, illak eurak be saltuka ezarteko aiñako jaki gozo-gozoa eukiko dabe. Gero arkumea zatituten saiatu dira. Zelako okelatzar bular eta iztarretan! Sekulako saizki-zedarrak, txuletillatxuak. Okela zati guri, bigunak ez eze ugari be ba ziran, azpilla ganezka agertzen zan, ganezka saizkizerarrakaz. Gero arkume aurreko zatiakaz kazulakada saltzan, arkume boroska, saltzan.

Guztia au gitxi uste izanik... egia esan, gertzen jakezan arkumekiakaz, arkume atseko iztarrakaz ez dakit zer egiten dagozan... ainbeste jaki gozo-gozo neure begien aurrean ikustea jasan ezinik, ango opartotasun, bertako jaki usain lilluragarriak eraginda sekulako gosea nire urdaillean sorturik, bertatik anka egin bear izan dot, Txakurtok iñotsan. Uste dot, arkume iztar biak laban erreta sukalduko dabezela, ta jaki ori niretzat geiegi da. Kazulakada, azpilkada areik ikustea be, zoragarria da. Baiña ez, nire andra-gizon ugazabak gaur jango daben bazkaria, aitatu koaz ez da amaitzen, ez. Onkeri, onki bezela irris-esneaz ta gatzatua dabez, eta oneik be otamen politetan. Zoragarria, benetan bazkari zoragarria!

Txakurto jaunak bere bakar-izketa astiro-astiro, geldiro-geldiro, emen gelditu geroago arintzeko, laketasun bereziaz izan eban. Bere urdaillean, txakurraren urdaillean, arkumekia gertatzen ikusiaz, sekulako gosea eragin ba eutsan, bere entzulenetan, entzulen artean, sekulako bazkari aren azalpenak entzutean, abo, agoa, ura biurtzen jaken, eta zer esan luki jaunaretzaz? Berak Lukiak, bera erdi-illik izanik, gosez ilda zala esan leiteke, Txakurtok edesten, azaltzen ebana beste ludiko, beste galaxi bateko gertakisun anbat zala, uste eban. Txakurtok ain ederto margoztu eban bazkaria, lu-

Azeria kate gogor bateaz lotuta ta bere aurrean oillo aldra bat jolasten; isekatzzen.



di onetan lortu eziñekoa dala eritxion. Mundu onetan gertatu, sukaldu, eziñekoa dala, uste eban. Zutik, zutunik, geldi-geldi, mugimendurik txikiena be egin barik, ixil-ixilik, gure azeria geratu zan, Txakurto jaunari bere askatasuna eskatzeko adorerik be gabe.

Azkenean Luki jaunak bere so-aldia bere adimenetik aldenduz, txakurrari esan eutsan:

Txakurto jauna, noiz azkatuko nozu ba? Zigor naikorik izan dodala, ez dozu uste? Nire uts, oker-egifña, nire oben txikitxua ondo be ondo ordaidu dodala, zure barne, baitak, ez diñotsu?, abots maitekiroz eta apaltasunik berezienaz, azeriak iñotsan.

Anton Deuna, abere guztien zaindari! Oillosko txiki baten eriotz obengille bat naz! Egun luzarotan ezertxu be jan barik, goseak

eraginda oillosku txikitxu bat, neure gosea makaldu ta neure bizia luzatu naian, artu ta iltea bearturik izan nintzan! Eriotz orren on-dorioz, ordu luzeetan gau ta egun, txabola baten, edurrez inguraturik dan txabola baten, ezertxu be jaten emon barik, guztitariko alamen, irain, iseka, zitalkeri zigor bezela jasan bear izan dodaz! Noiz arte nire nekaldi onek iraun bear dau?... Txakurto jauna, errukitu zaitez nigaz!... eta azkatu naizu!...

Bazkari ostean, nire andra-gizon ugazabak euren jatordu amaitzen dabenean azkatuko zaitudala esan dautsut, eta alan egingo dot. Nik neure itza beteko dot, zuk zeurea ez zinduan bete baiña. Baiña leenago entzun eistazu, Txakurtok esan eutsan.

Zuk, oilloskoa lapurtu ta ilteaz, oben bat egin zenduan, baiña leengo eguneko zure egikisunean beste uts, oker, oben bat be izan zenduan. Zure zin egite, zure itz emotea baztertu, ukatu zenduan.

Errialde onetako nekazari langille, deduzko artean ain sustraituta dan oitura deun ori, itz emotea, zapaldu zenduan, egikisun ori emen oben astun bat da. Bertako erritar, biztanleentzat errez parkatu eziñeko oben astun bat. Zuzen be, errialde onetan, oillosko, egazti, baten lapurketa ta eriotza, iltea, gaba aretan ori egin zenduan zuk, guztiz mingarria izaten dan lurralde onetan, bertako oitura deun baten

eriotza, itz-emote eriotza, ondiño be mingarriagoa da. Oillosko barriak gure oillo-oillarrikandik jaioko dira, baiña zapaldu, galtzen diran oitura deun onak barriztatzeko ez dago oillo-oillarrik.

Euskalerriko lurak lantzen dabezan nekazari langille oneintzat, emoneko itza betetzea, erri-gizartea osotzen dauan zerbait, berari, erriari dagokion zerbait da, ta zuk zeure egikisun zikin orregaz erri au ukatu, baztertu dozu, ta beraz lurralde, erri onetan bizitzeko ez zara duiña. Emendik urrun, guztiz urrun, berrogetamar legu bitarte urrun gitxienez, zure bitzita bururatu bearke dozu. Jasan bear izan dozun zigorraren ganera, au da zure obenaren beste zigor bat.

Azkatzen zaitudan une ber-beratan lau-ankan emendik ospe egingo dozu. Zure usain, aztarnik be lurralde oneitan izan daiten ez dot zilllegiko. Zu askatu baño leenago, Goikomendiko andra-gizonak zetan diran ikusten noa, zure arazotzaz eurak dabe azkenengo erabagia. Gero arte, agur. Au esanik txakurra etxeratu zan.

Txakurtok bere ugazabari oillotokian jazoriko guztia azaldu eutsan, eta eskerrak ugazabak aldarte ona ebela. Alde batetik, eurantzat egun oroigarria zan, ganera sakeleratu ebezan jaki gozo, ugariak eta akeite, txolatxu bat edo beste edanda, aldarte ezin alai, pozagoa eben. Alan da guzti be, txakurrari euren asarrea

agertu eutsoen eta agirekada garrats bat egin be.

Zaintzaille guztiz makala zara, Txakurto, esan eutsoen, zure eginbearra zintzo ez dozu bete, guk zugan uste osoa genduan; zeure gogo, naiaren, aurka izango zan, baiña iruzur egin dauskuzu. Eskerrak gure etxean, gurean, urte luzaro asko daroazuzan, bestela oraintxe emen berton, zure lantokia, txakurtokia, zure orde bestea txakur-zaintzaille bat izendatuz, baztertu bearke zeunke, edurtze gogor onetan egoitzgabe, ezertxu bat be barik geratu ziñake.

Luki, azeri zital orreri bazkal ostean azkatuko dozula itz, berbea, emon ba dautsazu, garaia da zure itza betetzeko. Gaurko egun zorion eta oroimen alaiatz beteriko onetan, pozalaitasun eta itxaropen oroimenez beteriko egun onetan, nire inguruan diran izakiak oiñazez, samíñez izatea, euren arazoak gogortzen saiatuz, ez dot zilllegiko. Bidali-zorrotxu onetan, arkumeki ondakin oneik, salda, oillozuku bero apur bat, eta bidalirako akeite berobero au bonbilla onetan, irakitzen dagon akeite apur bat, sartu ta eriozuz.

Bai, ba dakit bere egikisun eta bere gríña txarragaitik, gure jokabide onetarako ez dala duiña, baiña ara, gosez askatu ta bialtzen ba dogu, ezertxu be emon barik bere bidalian ba doa, leenengo oillotokian oillo, egazti edo untxi anbat arrapauko dau. Ori bai, zuk ezarri-

tako zigorra, erbesteratze-zigorra, bete bearke dau. Lurralde oneitan bere auzokidetasunik nabaritzen ba dogu, atxilotu ta espetxeraterik ez dau izango, eriotz-zigorra izango dau.

Txakurtok bere ugazabaren agindua betetzera, bidali-zorroa lepoan ebalá, Luki aurkitzen zan oillotokirantz abiatu zan.

Zorionekoa zara, guztiz zorionekoa zara, Luki ziztrin ori, iñotsan Txakurtok. Begiratu eizu zure azekeria, zure zitalkeri, maltzurkeriak, nire andra-gizon ugazabak zelan ordaintzen dautsuzan. Izaki guztiei dagokion azkatasuna, ta beraz zuri be bai, zillegiaz, euren biotz ona argi agertzen dabe. Baiña zu askatzea zillegi ez eze, bidalian, zure bidalian, otz eta gosez il ez zaitezán, bidali-zorro onetan jaki gozo, arkumeki gozo-gozoa daroazu ta edari bezela, salda, zuku bero-beroa ta bonbilla bete akeít ondiño beroagoa. Zure azekerien ordain zifñistu ezifñekoa.

Askatu baño leenago, barriro ta aiztu ezifña izan dagizun, gogoratuko dautsut, zer egin bear dozun. Emendik, azke izan orduko, nik askatu orduko, lauankan aldatz-gora naiz aldatz-bera joango zara, atsera begirekada bat be egin barik, erbesteratuko zara. Zure aztarnik be, zure usain zikiñik, lurralde onetan ez dogu bear, bidali-zorrotxu onen ganean zin egin bear dozu.

Guztiz apal, burua makur eta buztana anka-

pean, Luki jaunak zin egin eban, eta bein eta barriro eskerrak danari emonez, batez be andra-gizon etxaguneri, agurtu ebazan, bere ala beko aldeko gaztaiñaditik lau-ankan, bidali-zorroa lepoan ebalá txokatxu baten estaldu zan.

Oillo batzuk ugazabaren erabagia, azeria azke zillegitea, ez eben ontzat-artu, baiña azkenean Luki jauna danak agurtu eben. Arerio, etsai bat gaurtik aurrera gitxiago dogu, iñoen.

Mendi barrenetik arri artetik saltuka ta zurrumurrutsu igaroten zan errekatxu ur garden-duna jauzkada bateaz zearkaturik, beste mendi magalean gurbiztegi baten ikatzegilleak eukien txabolarantz abiatu zan. Txabola beratan arteroko gaba bat, Luki jaunak igaro eban.

Gaba au txabola orretan emongo dot, bertatik guztiz ur su eder bat egiteko egur, mukur, ugari eukiko dot, iñoan azeriak, gero biar goizean goiztar, eguzkiaren leenen izpi argitasunaz edurtze au apur bat makalduko da ta, zerbait gozaltzeko be lortu al izango dot.

Une onetan ipuiñ-egilleak azeriaren aztarna osoz galtzen dau. Arik aurrera ez dogu beragan barririk. Ez dakigu bizirik ba da ala il ba zan, ez da be azerikeri geiago egin ba eban. Goikomendi inguruetako lurraldetan, erri osoan be ez, bere usain zikiña iñork ez eban geiagotan nabaritu.

Baiña Goikomendi basetxe ta bertako oillo-

tegian zer jazo zan ba dakigu. Azeria lurralde aretatik aldendu zanetik egun bi barru edurra urturik, ortu, solo, landa ta zugaitziak sasoi beratako orraze agertzen eben. Eguzki izpi epelak, txoritxuei, naizta makalkiro txio-txio alaitsuak eragiten eutsoezan. Oillarraren kurrukuak eta oilloen kar-kar zurrumuruak, Goikomendi basetxea apur bat alaitzen eben. Oillotxuak apurka apurka euren oiturazko zeregina, negualdiak eraginda makaldua ebena, au da arrautz eder-eder, biribil-biribillak ipintzea, bizkortzen asi zan.

Goikomendiko etxagun andra-gizonak Udabarri barri baten etorrera itxaropentsu, solo, ortu, lantzar eta bedar-lekuak apaindu, antolatzen saiatzen ziran. Laster, ille gitxi barru leenengo lorak larrosa ta zugaitztetan agertuko ziran eta epe laburrean euren adarretatik dindilizka ikusiko ebezan igali gozo, usaintsuak aztiatuz, atsegintsu ziran. Goikomendiko etxegunak urte oparotusa itxaroten eben, uzta ugaria lortuko eben.

Dana zan lurralde aretan poz-alaitasuna, Txakurto bera be, alai, txantxelari zan. Azeriari oillotokiak gaba igaroten zillegiteaz izan eban utsak eraginda, etxegun andra-gizonakaz sotil, kezkatu zan, baiña egunak joanda, ta beragan barrero bere ugazabak uste osoa ebela ikusirik, poz-alai, txera ta koipekeriz beterik bere esker-ona agertzen eutsen.

Gai ezeretz-utsa, urri da ipuin edo idazki ain luzerako, baiña liburu onen, ipuin onen egillearentzat, azeri ez txakur, ez Urtarrillako egun edurtsuak be ez dira garrantitsuak. Berantzat euskerea da bereziki zer-ikusidauana. Ongi-etorria izan bedi beti euskerazko idazki, liburu bat.

Ba leiteke, zuk, irakurle zure adimen argi edatsuz idazki onetan bere esan-nai, ondoren, moraleja zerbait onuragarria aurkitzea.

Azkenez, azeri, oillo, oillosko, oillar eta txakurra ipuin onetan kide izan zarienok ongi-etorriak, gure izkuntz, euskera, erabilteko zio izan zarie ta. Zuri irakurle, ipuin au azkenengo orri arte irakurri ba dozu, milla esker.